



TEJERORENA ONA. —Honek armatu duena ere ez da txantxetakoa izan. Berrehun bat lagun hartu eta ala a por ellos oihukatuz hemizikloan sartu. Euskal Herriko auzoak ia hutsik utzi — kristo guztiak hanka, badaezpadaere— eta TVan inoiz baino programa luzeagoa eta gainera publizitaterik gabekoa egin erazi zuen horrek hurrengo eguneko egunkari guztietan lehen orrialdean bere burua ikustea

lortu du. Argazki bera, leku guztietan. Gure infiltratuek diotenez, EFE agentziaren montajea omen. SERekoak —Jose M^a García «dozekilosano» barnean— ere ongi: zezen korridak, futbola eta gainontzekoak konstatzen dizkiguten eran, bota bait digute hau ere. Pancho Villa berjaio ote? Bukaeran, Tejerok honela kantatu omen zuen: zazpi laguneko koadrilla batetan... bere bakardadeari zentzua aurkitu nahiean...